



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2008ko urriaren 28a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:03

BUKATZEKO ORDUA: 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

1. Juan Vicente Lasa Karrikaburu Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentzialaren berri ematea eta hark zinegotzi kargua jabetzan hartzea, egoki bada; Juan Vicente Lasa Karrikaburu Eusko Alkartasuna (EA) alderdi politikoko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Eugenio Cotado Iturainen orde.
2. Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2008ko irailaren 18an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
3. Hartzea dagozkion erabakiak, egoki bada, euskal toki erakundeetako funtzionarioen eta beste langileen lan baldintzak arautzen dituen UDALHITZ 2008-2010 akordioari buruz.
4. Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.



5. Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifak igotzea 2009rako.
6. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 2/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egina dago.
7. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 3/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
8. Berrestea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa.
9. ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAri zuzenean adjudikatzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean — Munto— dagoen eskola erabilerarako lursailaren lurrazal-eskubidearen lagapena, ikastetxe bat eraikitzeko.
10. Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Udalean talde misto bat sortzeari buruz.
11. Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, EAE/ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioari buruz, eta EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa.
12. Onartzea, egoki bada, adierazpen instituzional bat ETArekin honako atentatuei buruzkoa: Santoñan Luis Conde de la Cruz armadako brigada hil zuena, Ondarroako Ertzaintzaren polizia etxearen kontra egindakoa, Gasteizko Caja Vitalaren egoitza sozialaren kontrakoa eta Tolosako epaitegiaren kontrakoa.
13. Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- JUAN VICENTE LASA KARRIKABURU ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA ADIERAZTEN DUEN KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA HARK ZINEGOTZI KARGUA JABETZAN HARTZEA, EGOKI BADA; JUAN VICENTE LASA KARRIKABURU EUSKO ALKARTASUNA (EA) ALDERDI POLITIKOKO ZINEGOTZI IZANGO DA, BERE KARGUARI UKO EGIN DION EUGENIO COTADO ITURAINEN ORDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Juan Vicente Lasa Karrikaburu Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentziala eman du Hauteskunde Batzorde Zentralaren presidentetara; Juan Vicente Lasa Karrikaburu Eusko Alkartasuna (EA) alderdi politikoko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Eugenio Cotado Iturainen ordeza.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Juan Vicente Lasa Karrikaburuk eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jardueri buruzko aitortpena eta ondasunen aitortpena. Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina aldeztu aurretik eginda, Juan Vicente Lasa Karrikaburuk



Orioko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, Eusko Alkartasuna alderdi politikoaren izenean.

2.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2008KO IRAILAREN 18AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

ONARTZEA Udalbatzarrak 2008ko irailaren 18an egindako ezohiko bilkurako akta.

3.- HARTZEA DAGOZKION ERABAKIAK, EGOKI BADA, EUSKAL TOKI ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIOEN ETA BESTE LANGILEEN LAN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN UDALHITZ 2008-2010 AKORDIOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Euskal Toki Erakundeetako funtzionarioen eta beste langileen lan baldintzak arautzen dituen UDALHITZ 2008-2010 akordioa 2008ko irailaren 22an izenpetu zuten EUDELEk (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkariek.

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioan bide luzea egin du EUDELen eta ordezkarri gehien duten sindikatuen arteko akordioak: hasteko, EUFALEBA/ARCEPAFEko akordioak izan ziren, eta, ondoren, 2006ko martxoko UDALHITZ akordioak; hori dela eta, lan baldintzen marko aurreratu eta egituratu bat osatu da, eta asko garatu da euskal lurralde erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzu emateko espiritua.

Apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 34. artikuluan, lan harremanetarako marko bateratu hori are gehiago indartzeko aukera ematen die udalei, modu esplizituan onartzen baitu negoziazio prozesuan EUDELen tankerako udal elkarteek toki erakundeen ordezkaritza zuzenean hartzeko aukera, ondorio guztietarako.

Horri esker, EUDELEk bideratu ditu negoziazioak ordezkarri sindikalekin, toki erakundeen izenean, eta akordio sektorialak sinatu ditu, erakunde bakoitzean berehala aplikatu daitezkeenak, haiekin bat egitea beste egin beharrik gabe; horrek asko sinpletzen du negoziazioaren dinamika eta, aldi berean, lan baldintzak erakunde guztietan homogeneizatzeko aukera dakar, eta hori ona da inplikaturako alderdi guztientzat.

EUDELEk eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuek irailaren 22an sinatu dituzte Euskal Toki Erakundeetako funtzionarioen eta beste langileen lan baldintzak arautzen dituzten UDALHITZ 2008-2010 Akordioak, eta Udalari bidali dizkiote, haiekin bat egin dezan.



Akordio horien 8. artikulua dio, bestalde, akordioa gainditzen duten eta alde aurretik onartuta dauden baldintzei eutsi ahal izango zaiela, bai erakundearen eremuan eta bai pertsona jakinen eremuan.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta eskatzen du UDALHITZ akordioa osorik eta lehenbailehen aplikatzea Orioko Musika Eskolako irakasleei eta bertako beste langileei, helburutzat hartuta 2009-2010 ikasturtea, eta, horretarako, dagozkion aurrekontu partidak ezartzea udal aurrekontuetan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2008ko urriaren 22an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- BAT EGITEA Euskal Toki Erakundeetako funtzionarioen eta beste langileen lan baldintzak arautzen dituen UDALHITZ 2008-2010 akordioarekin (EUDELEK eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuek 2008ko irailaren 22an sinatua), honako salbuespena eginez: ez da onartzen UDALHITZen 14., 15., 18., 30., eta 31. artikuluetan ezarritakoa, kontserbatorioetako eta udal musika eskoletako irakasleen eta bestelako langileen lansaioari, lan egutegiari eta oporrei buruzkoa, eta, beraz, artikuluko horiek ez dira aplikagarriak izango Orioko Danbolin Musika Eskolako irakasleentzat eta bertako bestelako langileentzat. Horren ordez, honako lan baldintzak aplikatuko zaizkie:

- Urteko lanordu kopurua, lanaldi osoarekin, 1592 ordukoa izango da, gehienez, eta hori egokitu egin beharko da, alde batetik, dagozkion ikasturtearen iraupena kontuan hartuz (ikasturtea, irakasleentzat, irailaren 1ean hasiko da eta hurrengo urteko ekainaren 30ean bukatuko da; zuzendari lanak egiten dituenarentzat eta bestelako langileentzat ikasturtea irailaren 1ean hasiko da eta hurrengo urteko uztailaren lehen hamabostaldian bukatuko da, luze jota), eta, bestetik, asteko lansaioa kontuan hartuz (irakastordu gisa 40 minutu izendatuko dira astero, musika tresna jakin batean izena emanda dagoen ikasle bakoitzeko; horri gehitu behar zaio beste ordubete bat, musika taldean lantzeko; eta, horrez gain, ordu osagarri gisa, klaseak prestatzeko edota bilera eta klaustroetara joateko, irakastorduen % 15eko portzentajea izendatuko da).
- Irakasleek eta bestelako langileek eskubidea izango dute, zerbitzua ematen duten urtebete bakoitzeko, 24 laneguneko oporraldi ordainduak izateko, astelehenetik ostiralera bitartean kontatuak, edo proportzioan dagozkien opor egunak izateko, zerbitzuan emandako denbora txikiagoa izan bada; Aste Santuko eta Gabonetako opor egunak, ikasleen egutegian markatutakoak, opor egunen kontsiderazioa izango dute eta, beraz, langileari egokitzen zaizkion gainerako opor egunak (egokitzen bazaizkio) dirutan kobratuko ditu ikasturtea amaitzerakoan, azken kitatze agiria jasotzearekin batera.

2.- EUSTEA alde aurretik onartuta zeuden ondoko baldintzei: 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera udal langileek aukera izango dute norbere arazoetarako sei eguneko lizentzia



hartzeko (edo horien ekibalentzia, ordutan); ordu horiek urteko lanordu kopurutik deskontatuko dira; horrez gain, beste bi egun hartzeko aukera izango dute, orduak errekuuperatzekotan.

3.- Udal erabaki honen **BERRI EMATEA** EUDELi, Pertsonaleko Batzordeari eta Orioko Udalean kreditatutako sindikatu guztiei.

Emandako botoa azaltzeko, Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Ez datorrelako bat UDALHITZ hitzarmena egiteko erabili den moduarekin, amarrua izan baita.
- Gaur egun bizi dugun krisi ekonomiko egoerarekin ez direlako inolaz ere onartzeko modukoak hitzarmenean jasota dauden soldata igoerak.
- Soldata igoera horiek eta beste gehikuntza batzuk (esate baterako, udaltzainen sailkapen taldearen aldaketak sortzen duenak) ia erreka jotzera eramango dituztelako hainbat eta hainbat udal.
- Ondorioz, UDALHITZ 2008-2010 akordioak gehiegikeria direlako, eta maniobra huts bat hurrengo hauteskunde prozesuei begira.

Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du, azkenean, abstentzio botoa ematea erabaki duela, kontuan hartuta bere alderdi politikoak, inguruko udalerrietan, ez dituela onartu UDALHITZ 2008-2010 akordioak.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2009KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2008ko irailaren 30eko eta urriaren 22ko Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzaileetan diktaminatu da era honetara: 2008an indarrean dauden zerga, tasa eta tarifei % 5eko gehikuntza aplikatuko zaie, honako salbuespenekin:

- 1.- Izaera Urbanoko eta Errustikoko Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikatutako karga tasa % 5 igoko da.
Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren familia ugarietarako hoberiak ere % 5 igoko dira.
- 2.- Orioko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren exakzioarako ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra % 5 igoko da.
- 3.- Izaera Urbanoko Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskaleko 20 urte arteko portzentajeen koadroa honela ezarrita geratzen da: % 2,9ko urteko portzentajea.

Bestalde, zerga horren karga-tasa honela ezarrita geratzen da: % 8, 2009an; % 9, 2010ean; eta % 10, 2011n.



- 4.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak % 5 gehituko dira, orokorrean; baina salbuespen honekin: 16 eta 19,99 zaldi fiskaleko tartean eta 20 zaldi fiskaletik gorako tartean sailkatuta dauden ibilgailuen tarifak % 10 gehituko dira.

Bestalde, ziklomotore eta motorrei dagozkien tarifak honela ezarrita geratzen dira: 125 cc artekoak, 9,70 euro; 125 cc eta 250 cc artekoak, 16,60 euro; eta 250 cc eta 500 cc artekoak, 33 euro.

- 5.- % 90a arteko hobaria ezartzen da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren kuotaren ganean, establezimendu komertzial eta industrial berriak irekitzeko egiten diren eraikuntza, instalazio edo obra guztietarako, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako erabiliko den lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada.
- 6.- Orioko Udalak aukera izango du udal erabilera publikoko lurrak mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzekoekin okupatzeko tasaren 1. ataleko tarifari % 100 arteko hobaria aplikatzeko, azpiegitura orokorreko obren exekuzioak udal erabilera publikoko lurren okupazioari zuzenean eragiten dionean
- 7.- Zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzuaren tasa dela eta, bi proposamen desberdin daude: batak planteatzen du tarifak % 10 igotzea eta besteak, berriz, tarifak % 20 igotzea.

Aho batezko proposamen hau dago, hala ere: lehen zerga urtean % 50eko hobaria ezartzea, tasaren tarifen ganean, establezimendu komertzial eta industrial berrietarako, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako erabiliko den lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada.

- 8.- Azurza etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilerari dagokion tasaren tarifek ez dute 2009an inolako igoerarik izango.

Kontuan hartuta Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzaileko kideek aho batez onartzen dutela tarifak, orokorrean % 5 igotzeko proposamena eta aho batez onartzen dituztela, baita ere, goian aipatutako xehetasunak, zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzuaren tarifen igoeraren salbuespenarekin, bozketan jartzen da azken hori; lehendabizi, tarifa horiek, orokorrean, % 10 igotzeko proposamena bozkatzen da eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Belasko, Goiburu, Zinkunegi eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek, guztira **LAU ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Lasa (EA) eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **SEI KONTRAKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua.

Abstentzio botoa ematen du Iturain (EB-B/Aralar) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Ondorioz, udalbatzarrak **ATZERA BOTATZEN DU** zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzua emateagatik tasari dagozkion tarifak, orokorrean, % 10 igotzeko proposamena.



Bigarrenik, tarifa horiek, orokorrean, % 20 igotzeko proposamena bozkatzen da eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Lasa (EA) eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **SEI ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua.

Kontrako botoa ematen dute Belasko, Goiburu, Zinkunegi eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek, guztira **LAU KONTRAKO BOTO**.

Abstentzio botoa ematen du Iturain (EB-B/Aralar) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Ondorioz, udalbatzarrak **LEHEN ONARPENA EMATEN DIO** zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzua emateagatik tasari dagozkion tarifak, orokorrean, % 20 igotzeko proposamenari.

Segidan, bozketan jartzen da 2008an indarrean egon diren tarifak, orokorrean % 5 igotzeko proposamena, barnean biltzen dituen azalpenean zerrendatu diren xehetasunak.

Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.



Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzuaren tasaren tarifen gaia luze eta zabal eztabaidatu zela Hazienda batzordeko hainbat bileratan; zabor bilketa zerbitzuaren kostu errealak zein diren publikoki jakinaraztearen aldekoa dela eta, nolana ere, tarifak besterik gabe igotzeko partez, aztertu behar direla bestelako alternatibak, kontuan hartuta gero eta hondakin gehiago sortzen dugula. Bukatzeko, adierazten du kontua ez dela kostu guztiak herritarren bizkar uztea eta badela garaia alternatiba argiak planteatzeko. Esaten du, baita ere, Urola Kostako Udal Elkartearen kontuak, zaborren gaiari dagokionez, ez direla batere argiak eta hori salatzea dela.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du zaborren tarifa igotzeko kontu honekin hautsi egin dela, azken orduan, Udaleko talde guztien artean zegoen adostasuna, Ordenantza Fiskalen eta bere eranskinen aldaketa onartzeko; eta, gainera, hori inolako arrazoirik eman gabe eta alde zurretik azterketarik egin gabe planteatu dela. Adierazten du, azkenik, gehiengoz onartu den % 20ko igoerak arazoak sortuko dizkiela oriotarrei etxeko ekonomian.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du zabor bilketaren tarifak % 10 igotzeak dakarren gehikuntza 0,5 eurokoa dela, hileko eta etxebizitzako; tarifa horiek % 20 igotzeak dakarren gehikuntza, aldiz, euro 1ekoa da, hileko eta etxebizitzako. Adierazten du, baita ere, zerbitzu horren kostuak asko handitu direla, kontuan hartu behar baita Urtetako hondakindegia 2011n edo 2012an itxiko dela eta, ondoren, horren mantentze eta zigorlanak egin behar direla, gutxienez 20 urtez. Adierazten du, azkenik, Aiako eta Getariako udalek tarifa horiek % 25 eta % 30 igotzea erabaki dutela, eta Orioko Udalarari, 2008an, 175.822 euroko defizita sortuko diola zabor bilketa zerbitzua emateak eta, beraz, gaurko egunez, ez dagoela inolako dudarik: zerbitzua ematearen kostu errealak ez doa herritar/erabiltzailearen bizkar.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du benetako kostuen azterketa baten premia dagoela, etxez etxeko zabor bilketaren gaia behar bezala gestionatzeko. Bestalde, dio, zerbitzu bat denez, egokia iruditzen zaiola defizita izatea.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta galdetzen du: Zergatik itxiko da Urtetako hondakindegia 2011n edo 2012an? Bere ustez, bertara botatzen den zaborraren bolumena izugarri handitu delako San Marcos hondakindegia itxi zenetik; eta ez dago ahazterik, dio Goiburuk, Urtetako hondakindegia itxi eta gero, erraustegien txanda datorrela, martxan jarri nahi baitira, bestelako alternatibak (atez ateko bilketa zerbitzua, esate baterako) aztertu gabe. Azkenik, adierazten du ondo aztertu behar dela 2012an zer egin, irtenbidea ez baita zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa zerbitzua emateagatik kobratzen den tasaren tarifak igotze hutsa.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du ezin dela demagogia egin herritarren eskuineko eta ezkerreko patrikarekin; badirudi tarifak igotzea dela gure kezka bakarra, baina esan beharra dago zerbitzuaren kostu osoa herritarren bizkar kargatuz gero, ez dagoela defizitik eta Europar Batasunak emandako



irizpideen arabera, kostuaren % 100 ordaindu behar dela tasaren bitartez, eta ez zergen bitartez; beraz, presio fiskalari eutsi eta zergekin jokatu behar da, horiek ez baitute defizitrik sortzen; tasek, berriz, ez dute uzten inolako maniobrarako tarterik.

Azkenik, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta azken bost urteetako zaborren tasaren gehikuntzari buruzko datuak eskatzen ditu.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK IGOTZEA 2009RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; AGITAX elkarteak eskaria aurkeztu du, 2009an auto-taxi zerbitzuaren tarifak igotzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Urola Kostako Taxien Eskualdeko Batzordeak, 2008ko irailaren 10eko bilkuran, oniritzia eman zion 2009an auto-taxi zerbitzuaren tarifak igotzeko proposamenari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2008ko irailaren 30ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko, Goiburu eta Zinkunegi, guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA auto-taxi zerbitzuaren tarifak igotzea 2009rako, AGITAX elkarteak aurkeztu duen eskariaren arabera. Onartutako tarifak honako hauek dira:

TARIFA URBANOA 2009					
1. TARIFA (*)			2. TARIFA (**)		
Gutxieneko tarifa	Kilometro bakoitzeko	Itxoiten pasatako ordua	Gutxieneko tarifa	Kilometro bakoitzeko	Itxoiten pasatako ordua
4,6485	0,9920	18,9450	5,5335	1,5822	29,7775

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igande, larunbat eta jai egunetan, 07:00etatik 22:00etara.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela, ez dagoelako ados Orion auto-taxi zerbitzua emateko



moduarekin, zeren eta, normalean, ez baita taxirik izaten taxi geltokian; hori dela eta, eskatzen du auto-taxi zerbitzua arautzeko udal ordenantza bat berehala prestatzea.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO AURREKONTUARI DAGOKION 2/2008 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIEI MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 2/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak emandako txostena ikusita, eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2008ko irailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 2/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egin da eta 243.638 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu hartzaileak

b) Espedientea aztertzeko eta, hala bada, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatzeko duten udalbatzarkideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO AURREKONTUARI DAGOKION 3/2008 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 3/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak emandako txostena ikusita, eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2008ko urriaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 3/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 416.130 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu hartzailetza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatzen duten udalbatzarkideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Karnele Belaskok hartzen du hitza eta honako hau adierazten du, gogoeta pertsonal gisa: 2009ko udal aurrekontuaren proiektua idazteko modua findu eta hobetu egin behar dela, eta behar diren partidak sortzeko ahalegina egin behar dela, ahalik eta gastu gehienei aurre egin ahal izateko, zeren eta, bere ustez, 2008ko aurrekontua garatzerakoan egin diren kreditua aldatzeko espedienteetako batzuk saihesteko aukera izango zen, aurrekontua idazterakoan kontu gehiagoz jokatu izan balitz.



8.- BERRESTEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Urola Kostako Udal Elkartearen Batzar Nagusiak, 2008ko uztailaren 3an egindako ezohiko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen: lehen onarpena ematea Udal Elkarteko estatutuen aldaketari eta erabaki hori jendaurrean jartzea.

Erabaki hori 2008ko uztailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (134. zenbakia) argitaratu zen eta jendaurreko epean ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakaritzaren eta Foru Administrazioaren Departamentuak aginduzko txostena eman zuen Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa proposamenari buruz.

Arauzko tramitazioa bukatzeko geratzen den eginbehar bakarra, beraz, honako hau da: Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten udaletako udalbatzarrek estatutu horien aldaketa proposamena berrestea, legezko gehiengo absolutuaren quorumarekin (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-g —in fine—); Orioko kasuan, sei aldeko boto behar dira.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta salatzen du Udal Elkartearen Batzorde Exekutiboaren osaketari dagokion gaia: orain arte 5000 biztanletik beherako herriek batzorde horretan bi batzordekide izendatzeko eskubidea zuten eta, aurrerantzean, estatutuen aldaketarekin, tarte hori zabaldu egiten da eta 6000 biztanletik beherako herriek izendatu ahal izango dituzte bi batzordekide; Iñaki Garciaen ustez, hori 'putxerazo' bat da edota lapurreta bat, eta horrekin lortu nahi dena da herritarren ordezkariatza murriztea. Iñaki Garcia dio, horrekin, EAJ alderdi politikoaren ordezkariatza indartu nahi dela, beste batzuen kaltetan (besteak beste, EB-B/Aralarren kaltetan), eta hori lotsagarria eta antidemokratikoa iruditzen zaiola.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du besaulkiei eusteko ahalegina dagoela hor atzean. Hitzez hitz, honela dio Joseba Goiburuk:

Mankomunitateko estatutu berrien aurrean.

Estatutu berriak osatzeko orduan, lehendabizi argi eduki behar duguna zera da, zeintzuk diren aldaketa horien helburuak. Helburu bat izan daiteke, herritarren parte-hartzea areagotzeko bideak ahalbidetzea, gaur egun mankomunitatea zoritxarrez herrietatik urruti sentitzen den erakunde bat delako. Beste helburu bat izan zitekeen apartheid politikoa gainditzeko bideak jartzea, helburu bat izan zitekeen herritarrek bozkatzeko dutena ondoren mankomunitatean ahalik eta modu zehatzenean irudikatzea alderi bakoitzaren pisua herritarrek emandakoa izan zedin.

Baina, zoritxarrez, hauek ez ziren Mankomunitateko Lehendakariaren helburuak. PNVren eta Lehendakariaren helburuak, beti bezala, PNVrentzat botere gehiago lortzea izan da, inongo lotsarik gabe egin dute lan alderdiari begira eta ez herriari begira, beti egiten duten bezalaxe.



Hasiera baten, Estatutuak aldatzeko eratu zen mahaiko kideen artean akordio batera iritsi ginen: 0 eta 5.000 biztanle bitarteko herriek 2 ordezkari izango zituzten batzorde exekutiboan, 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko herriek 3 ordezkari, 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko herriek 4 ordezkari eta 20.000tik gorakoek 5 ordezkari.

Hurrengo bileran Mankomunitateko Lehendakariak akordio hori aldatu zuen eta horretarako erabili zuen argudioa harrigarria iruditu zitzaigun, "Banaketa horrekin nire alderdiak maioria absolutua galtzen du batzorde exekutiboan, ez ginen konturatu Orion 5.000 biztanletik gora daudela eta beraz 3 ordezkari tokatzen zaizkiela banaketa modelo honekin eta beraz aldatu egingo dugu, 0 eta 6.000 bitartean 2 ordezkari, 6.000 eta 12.000 bitartean 3 ordezkari, 12.000 eta 18.000 bitartean 4 ordezkari eta 18.000tik aurrera 5 ordezkari. Egingo diren aldaketatan ez da nire alderdia galtzen aterako noski". Eta azkenean hau izan da erabili den formula.

Gaur egun formula hau aplikatuz gero, PNVk Mankomunitateko bozken %30,2arekin, batzorde exekutiboko ordezkarien %53,3 lortzen du, 8 ordezkari lortuko lituzke. EAK bozken %18,67rekin, ordezkarien %20 lortuko luke, 3 ordezkari. EB/Aralarrek bozken %17,46rekin, ordezkarien %6,6 lortuko luke, ordezkari bakarra. Ezker Abertzalea bozken %11,33arekin, eta bozka "legalak" soilik hartzen ditugu kontuan, ordezkarien %13,3 lortuko luke, 2 ordezkari. PSOEk bozken %15,53rekin, ordezkarien % 6,6 lortuko luke, ordezkari bakarra.

Nola liteke PSOERI ordezkari bakarra tokatzea bozken %15,53rekin edo EB/Aralarri ordezkari bakarra tokatzea bozken %17,46rekin eta PNVri bozken %30,2rekin 8 ordezkari tokatzea? Ze proportzionaltasun gordetzen du banaketa eredu horrek? Bi alderdi horiek bozken %33rekin 2 ordezkari lortzen dituzte eta PNVk %30,2rekin 8. PNVk bere helburuak lortu dituela esan genezake.

Hau gutxi balitz, Lehendakariordea Batzorde Exekutiboak aukeratzea nahi zuen PNVk, orain artean Batzar Orokorrak aukeratzeko zituen lau lehendakariordeak. Proposamena, Lehendakariorde bakarra izatea eta Batzar Exekutiboak aukeratzea zen. Hau jokaldi perfektua zen, PNVk Lehendakaria, Lehendakariordea, Batzorde Exekutiboan gehiengo absolutua eta hori dena bozken % 30,2rekin lortuko zituen, baino Diputazioko txosten juridiko batzuek hori legal-legala ez zela akordatu arazi zion PNVri eta horregatik ez dute proposamen hori mantendu; beraz, Lehendakariordea orain arte bezala aukeratu da eta ez da PNVrena izango.

Aldaketa guztiak alderdikieriaz egin dira, erabaki uneak herrietatik urrutiratu dira, Batzar Orokorraren funtzio hustuketa bat eman da eta Batzar Exekutiboak, berriz, orain eskumen askozaz handiagoak edukiko ditu, PNVk bertan lortzen duen gehiengo absolutu faltsu hori lasai-lasai erabili ahal izateko. Beraz guzti honengatik proposamen honen kontra bozkatuko dugu.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Udal Elkartearen estatutu berriek, Batzorde Exekutiboaren osaketari dagokionez, 2011-2015 agintealditik aurrera izango dutela eragina.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2008ko urriaren 22an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

EZ BERRESTEA Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa, akordioak ez duelako iritsi Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-g —in fine— artikulua exijitzen duen legezko gehiengo absolutuaren quoruma.

9.- ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI ZUZENEAN ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— DAGOEN ESKOLA ERABILERARAKO LURSAILAREN LURRAZAL-ESKUBIDEAREN LAGAPENA, IKASTETXE BAT ERAIKITZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- ONARTZEA ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI zuzenean adjudikatzea Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— dagoen eskola erabilerarako lursailaren lurrazal-eskubidearen lagapena, ikastetxe bat eraikitzeke; lagapena arautuko duen baldintza orriak honela dio, hitzez hitz:

IKASTETXE BAT ERAIKITZEKO HELBURUAREKIN ORIOKO UDALAREN LURSAIL BATEN GAINEKO LURRAZAL-ESKUBIDEA ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI EMATEKO BALDINTZEN ORRIA

LEHENENGOA.- HELBURUA ETA IZAERA JURIDIKOA

Baldintza-orri honen helburua da I. Eranskineko planoan azaltzen den (eta jarraian deskribatzen den) Orioko Udalaren jabetzapeko lursail eraikigarriaren gaineko lurrazal-eskubidea emateko adjudikazio zuzena erregulatzea eta lagapen horretatik ondorioztatzen diren baldintza eta betebeharrak ezartzea. Lagapen horren helburua da lurzoruan eta hegadan ikastetxe bat eraikitzea



ESKOLA ERABILERA KO LURSAILA (PR/G).

Deskripzioa:

Finka urbana, PR/G erreferentziarekin seinalatua Orioko Arau Subsidiarioetako Eraberritutako Testuko eta Plan Partzialeko 8. sektoreko —Munto— exekuzio unitateko Birpartzelazio Proiektutik sortutako partzelen zerrendan; Plan Partzial hori 2008ko martxoaren 4an onartu zuen behin betikoz udalbatzarrak (2008/04/22ko GAO) eta Arau Subsidiarioen Eraberritutako testua, berriz, 2007ko abenduaren 27an onartu zuen behin betikoz Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak (2008ko martxoaren 17ko 54. GAO).

Eskola erabilerako komunitate-ekipamendurako lursaila (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, DBH); azalera: 2.625 m²; eraikigarritasuna, gehienez: 2.400 m²; solairu bakoitzaren okupazioa, gehienez: 600 m², nahiz eta gehitu ahal izango den (gehienez, % 5).

Eraikinaren perfila: Beheko solairua, bi goiko solairu, eta kubiarta azpiko solairu bat. BS + 1S + 2S + KAS Eraikinak errespetatu egin beharko du jabari publiko itsas-lehortarreko babeseko zorgunea.

Mugak:

Iparra: Muntoko 8. sektoreko esparruarekin egiten du muga.

Hegoa: PDP-5 lursailarekin egiten du muga; lursail hori lur azpiko aparkalekura zuzendua dago eta kirol erabilera publikoko zortasuna du azaleran (futbol eta sofbol zelaia).

Ekialdea: PR/A lursailarekin egiten du muga; lursail hori bideetara eta espazio librerara zuzendua dago.

Mendebaldea: PR/4 lursailarekin eta PDP-5 lursailarekin egiten du muga; PR/4 lursailak etxebizitza erabilerara zuzendua dago, eta PDP-5 lursaila lur azpiko aparkalekura zuzendua dago eta kirol erabilera publikoko zortasuna du azaleran (futbol eta sofbol zelaia).

Hirigintza arauak: Lursail horren titularitateari datxezkion eskubide eta betebeharrak 2008ko martxoaren 4an udalbatzarrak behin betikoz onartutako Plan Partzialaren zehaztasunetan ezarritako mugen barnean gauzatuko dira (2008ko apirilaren 22ko GAO).

Kargak: Libre.

Adjudikazioa: % 100 ORIOKO UDALA

Korrespondentzia aportatutako finkarekin: Ez da ezarri correspondentziarik, tokiko dotaziotara zuzendutako lurren lagapen nahitaezko eta doakoa delako.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2008/10/28

Zortasunak: Lursail horren zati batek (1.912 m²) jabari publiko itsas-lehortarraren babespeko zortasunaren karga du.

Hirigintza karga: Ez dauka.

Oharra: Uztailaren 28ko Itsasertzaren 22/1988 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hau zehazten da: finkaren zati bat jabari publiko itsas-lehortarraren babespeko zorgunean dago, nahiz eta ez duen horrekin muga egiten.

Aipatutako lurrazal-eskubideak I. Eranskineko planoan zehazten den lur-eremura mugatuko dira, eta inolaz ere ezin izango da gaintitu baldintza-orri honetan zehaztutako gehienezko okupazioa.

Orioko Udalak lurrazal-eskubidea adjudikatzearen helburua da gaur egun indarrean dagoen planeamendu urbanistikoan lursail horretan egitea aurreikusten den ikastetxea eraikitzeo erabiltzea.

BIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Lurrazal-eskubidea honako arauetan bildutako xedapenen arabera lagako da: Lurzoruaren Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren V. tituluko III. kapitulua; horrekin bat datozen xedapenak; eskubidea eratzen duen titulua; eta, modu subsidiarioan, zuzenbide pribatuko arauak.

Kasu guztietan, eskubidea eratzeko eta lagatzeko baldintzak izango dira orri honetan ezartzen direnak.

HIRUGARRENA.- LURRAZAL ESKUBIDEAREN IRAUPENA

Emango den lurrazal-eskubideak berrogeita hamar urteko iraupena izango du, lurrazal eskubidearen lagapenaren eskritura publikoa sinatzen denetik kontatzen hasita; Udalak aukera izango du lurrazal eskubidea luzatzeko, gehienez ere 99 urteko epera arte, edo baimena emateko jasotzaileari eskubide horren jabe jarraitzeko errenta baten pean, baldin eta eraikinen egoerak aukera ematen badu erabiltzen segitzeko eta aplikagarria den planeamendu urbanistikoak ez badu lur horren xedea aldatu.

Lurrazal eskubidearen lagapenaren epea bukatzen denean, eskubidea iraungi egingo da eta lursailean eraikitako eraikin guztiak Orioko Udalera itzuliko dira, lurrazal-eskubidedunak inola ere kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ez duela.

Ikastetxea izanik, ikasturteak jarraitu ahal izan dezan berme gisa ezartzen da epea amaitutakoan erabilera-lagapena ikasturtea amaitu arte luzatuko dela.

Amaiera heltzean lurrazal-eskubidea iraungitzeak eskubide horren gainean ezarri ahal izan diren eskubide erreal eta pertsonal guztiak iraungitzea eragingo du.



LAUGARRENA.- FISKALITATEA

Eskubidea lagatzeak izan dezakeen edozein zerga eta eskubide horretatik zein egingo den eraikinetik ondorioztatzen direnak adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak ordainduko ditu osorik.

Era berean, adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunaren kontura izango dira lurrazal-eskubidea lagatzetik ondorioztatutako notario- eta erregistro-gastu guztiak.

BOSGARRENA.- ADJUDIKAZIODUN/LURRAZAL-ESKUBIDEDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

a) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak bere kontura eraikiko du eskola-eraikina, lurrazal-eskubidea emandako lursailean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxea ezartzeko Hirigintzako eta/edo Hezkuntzako legeek eskatzen dituzten instalazioekin. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe hori zein beste instalazioak hirigintza- eta sektore-araudi ezargarriaren arabera gauzatu beharko dira, lurrazal-eskubidea eratzen denetik 18 hilabeteko gehienezko epean. Epe horiek guztiak luza ditzake Udalak, adjudikaziodunak alde zuzenetik eta arrazoituta hala eskatuz gero.

Lurrazal-eskubidedunak ezagutzen du lur-eremuaren hirigintzako egoera eta bere gain hartzen ditu jabegoak atxikita dituen betebeharrak; horien artean dago lizentzia lortzea, eta, horretarako, hirigintza-aginteak eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

b) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak segurtasun- eta osasun-egoera onean eta egokitasun publikoko egoera onean eduki behar ditu emandako ondasun higiezinak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea zein haren instalazioak.

c) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunaren betebeharra da emandako ondasuna hezkuntza-helburuetarako bakarrik erabiltzea, eta helburu horretarako adjudikaziodunak berak erabili behar du; ezin dio lurrazal-eskubidea inori laga edo eskualdatu, ez erabilera besteri laga ere, Udalaren baimenik gabe.

d) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak Udalari aurretiaz baimena eskatu behar dio bere nortasun juridikoa eskualdatu edo aldatu ahal izateko, bat-egiteagatik, xurgapenagatik edo banaketagatik.

e) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak lurrazal-eskubidea hipotekatu ahal izango du ikastetxea eraikitzeko eskatutako maileguen berme gisa. Nolanahi ere, Udalak aurretik baimena eman behar du hipoteka eratzeko. Hipoteka eratzeko eskrituran baimen hori ez balego, jabetzaren erregistratzaileak uko egingo dio inskribatzeari. Nolanahi ere, lurrazal-eskubidea iraungitzean iraungiko da

f) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak bere gain hartzen du emandako ondasunaren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen eta eraikitzen



diren instalazio guztien kontserbazio- eta mantentze-gastuak, zerga guztiak eta tasak ordaintzea.

g) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak bere gain hartzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak funtzionatzeko dituen gastu guztiak ordaintzea: telefonoa, Internet, faxa, argindarra, ura, berokuntza, aire egokitua eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen zein emandako ondasunaren gainean eraikitako instalazio guztien garbiketa.

h) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak arrisku anitzeko aseguru sinatu behar du udal-ondareak eta horretan egiten diren lanek, eraikinek eta instalazioek kalterik ez jasatea bermatzeko.

i) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak udal-ondarearen gainean eraikitako eraikin eta instalazioei aplika dakiekeen sektore-legedi guztia bete beharko du.

j) Udalak adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunari diru-laguntza ematea onartuko balu, ikastetxea kontserbatzeko, mantentzeko eta funtzionatzeko gastuen finantziazioan laguntzeko, ikastetxe horren erabilera arautuko duen hitzarmen bat egingo da.

k) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunaren ardura izango dira udal-ondarea zein hango lanak, eraikitako eraikuntzak eta instalazioak erabiltzean pertsona eta ondasunek jasan ditzaketan doluzko zein erruzko kalteak.

l) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak eskola-orduez kanpo eskola-instalazioak erabiltzen utziko dio Udalari, bi aldeek hitzartuko duten eran.

ll) Lurrazal-eskubidea kostu bidez ematen den arren, kontuan hartuta lurrazal-eskubidedunak xede hezitzailea duela, lurrazal-eskubidearen kontraprestazio bakarra hau izango da: obligazioa izango du Orioko Udalari lokalak edo gelak erabiltzen uzteko, baldin eta honek zerbaiterako beharko balitu.

SEIGARRENA.- LURRAZAL-ESKUBIDEAREN IRAUNGIPENA

Eraikitze-lanak amaituta, urte batez eraikitako ondasunak ez erabiltzeak, ezinbestean izan ez bada, eta aurreko betebeharrak ez betetzeak lurrazal-eskubidearen lagapenaren iraungipen-espeditentari hasiera ematea ekarriko du.

Halaber, eraturako lurrazal-eskubidea iraungitzeko arrazoiak izango dira hauek:

a) Lurrazal-eskubidedunaren nortasun juridikoaren iraungipena, baldin eta Udalak nortasun hori haren ondorengo den pertsona juridikoari eskualdatzea baimentzen ez badu.

b) Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunaren nortasun juridikoa eskualdatzea edo aldatzea bat-egiteagatik, xurgapenagatik edo zatiketagatik, aurretik udalak baimenik eman ez badu.



- c) *Lagapenaren helburu den baimendutako jarduera bertan behera uztea.*
- d) *Lurrazal-eskubidedunak uko egitea.*
- e) *Udalak iraungitzea, lanak hasteko epea igaro delako lanak hasi gabe eta epearen luzapenik eskatu gabe, lanak bosgarren klausulako a) letran adierazitako epean amaitu ez direlako edo arau-hauste oso larriren bat egin delako.*
- f) *Bi aldeak ados egotea, ebazpena lurrazal-eskubidedunari egozteko arrazoirik ez bada eta kontratuak irautea beharrezko egiten ez duten interes publikoko arrazoiak badaude.*
- g) *Lurrazal-eskubidearen edo edozein luzapenen epea amaitzea.*
- h) *Lurrazal-eskubidea erreskatatzea, aurretik kalteak ordainduta.*
- i) *Lurrazal-eskubidearen titularrak bere betebeharrak ez betetzea lurrazal-eskubidea eman duen organoak hori larritzat jotzen duenean.*
- j) *Ondasuna desagertzea, aprobetxamendua agortzea edo udal-ondasunaren gaineko lanen, eraikitako eraikinen eta instalazioen hirigintzako aurria.*
- k) *Ondasunaren desafektazioa; kasu horretan, kitapena egingo da, 6.3 puntuan aurreikusitakoaren arabera.*
- l) *Behin betiko bermerik ez ematea eta lurrazal-eskubidearen lagapena epearen barruan ez formalizatzea.*

6.1.- Udal-ondarearen gaineko lan, eraikuntza eta instalazioen erabilera.- Edozein arrazoi dela kausa lurrazal-eskubidea iraungitzen denean, udal-ondarearen gaineko lan, eraikuntza eta instalazio finko guztiak bere horretan mantenduko dira eta Orioko Udalak doan eta karga eta zergarik gabe bereganatuko ditu. Zentzu horretan, Udalak maizter-botatzea bere kabuz hitzartzeko eta egiteko ahalmena duela onartzen da.

Lurrazal-eskubidea aurreko klausulako e), f), g), h), i) eta k) letretan aurreikusitako arrazoiaren ondorioz iraungiko balitz, sei hilabete lehenago Udalak udal-ondarearen gainean dauden lan, eraikin eta instalazioen egoera aztertzeke teknikariak izendatuko ditu eta, ikuskapen teknikoaren emaitzen arabera, haiek aurreikusitako baldintzetan mantentzeko beharrezkoak diren lanak eta konponketak egiteko aginduko du. Egin beharreko lanak, konponketak edo berriz jartzeak lurrazal-eskubidedunaren kontura izango dira.

Lurrazal-eskubidea a), b), c), eta d), letretan aurreikusitako arrazoiaren ondorioz iraungitzen bada, lurrazal-eskubidedunak erabakia hartu baino sei hilabete lehenago Udalak udal-ondarearen gainean dauden lan, eraikin eta instalazioen egoera aztertzeke teknikariak izendatuko ditu eta, ikuskapen teknikoaren emaitzen arabera, haiek aurreikusitako baldintzetan mantentzeko beharrezkoak



diren lanak eta konponketak egiteko aginduko du. Egin beharreko lanak, konponketak edo berriz jartzeak lurrazal-eskubidedunaren kontura izango dira.

6.2.- Lurrazal-eskubidea behar baino lehenago erreskatatzea.- Interes publikoko arrazoiengatik eta edozein unetan, Udalak bertan behera utzi ahal izango du lurrazal-eskubidea epemuga baino lehen, behar baino lehenagoko iraungipenak sortutako kalte materialagatik kalte-ordaina emanda. Erreskatatzeko unean, bermea Jabetza-erregistroan inskribatuta duten hipoteka-hartzekodunen eskubideak kontuan izango dira diru-laguntzaren zenbatekoa eta hartzaileak erabakitzeko orduan.

6.3.- Lurrazal-eskubidearen kitapena.-Emandako ondasunaren desfektazioak lurrazal-eskubidearen iraungipena eragingo du. Arrazoi horregatik lurrazal-eskubidea iraungitzen ez den bitartean, lurrazal-eskubidetik ondorioztatutako erlazio juridikoek bere horretan iraungo dute. Hala ere, erlazio juridiko horiek zuzenbide pribatuaren mende egotera pasatuko dira eta horien inguruko auziak jurisdikzio zibilari egokituko zaizkio.

ZAZPIGARRENA.- BERMEAK

Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak izenpetu eta mantendu beharko du, Orioko Udalaren alde, eraikitako ondarearen gainean suteen eta beste arrisku batzuen aurreko aseguruia, behar den kantitatean eta ondare-balioa eguneratzeko klausulekin.

ZORTZIGARRENA.- ARAU HAUSTEAK

Lurrazal-eskubidedunak lurrazal-eskubidean ezarritako baldintzak eta preskripzioak osorik edo zati batean betetzen ez dituen egoerak arau-hauste larrietan eta arinetan sailkatzen dira:

1.- Arau-hauste larritzat hartzen dira hauek:

1.1.- Lurrazal-eskubidea emandako lur-eremua urtebetez ez zaintzea edo ez erabiltzea, horretarako arrazoi egokirik izan gabe.

1.2.- Lurrazal-eskubidean emandako lursailak eta eraikitako instalazioak baimenik gabeko jardueretarako erabiltzea.

1.3.- Lursail eraikigarriaren mugak ez errespetatzea eraikinarekin zein erabilerarekin, eta inguruko eremu publikoak inbaditzea.

1.4.- Eraikitzeko lurrazal-eskubidean emandako lur-eremua osorik edo horren zati bat udal-baimenik gabe inori ematea, alokatzea edo eskualdatzea.

1.5.- Udalarekin lankidetzan jarduteko konpromisoak eta proposamenean jasotako beste erabilera publiko batzuekiko bateragarritasuna ez betetzea.



1.6.- Sei hilabeteko epean irregulartasun sinpleak behin baino gehiagotan egitea.

1.7.- Lurrazal-eskubidedunak emandako udal-ondarearen eta han egiten diren lanen, eraikinen eta instalazioen balio-galera eragingo duten jarduerak edo ez-egiteak egitea.

1.8.- Lurrazal-eskubidean emandako ondasun higiezinak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea zein haren instalazioak segurtasun- eta osasun-egoera onean eta egokitasun publikoko baldintzetan edukitzeko betebeharrak ez betetzea, horrek pertsona eta ondareentzat kaltea eragiten duenean.

2.- Arau-hauste arintzat hartzen dira hauek:

2.1.- Baldintza-orri hauetan ezarritako baldintza eta betebeharrak ez betetze guztiak, beren izaeragatik larrizat har ez daitezkeenean.

2.2.- Lurrazal-eskubidean emandako lursailen erabileran hobekuntzak edo aldaketak egiteko Udalak emandako aginduak ez betetzea.

BEDERATZIGARRENA.- ZIGORRAK

Lurrazal-eskubidedunak baimendutako jardueraren eraginez pertsonak zein ondasunek jasandako kalteak ordaintzeko betebeharrak du, jar dakizkiokeen zigorrez aparte.

Arau-hauste larriak 300 € eta 12.000 € bitarteko isunekin zigortuko dira eta lurrazal-eskubidea kentzea ere erabaki daiteke.

Arau-hauste arinak ohartarazpenekin eta 300 €-ra bitarteko isunekin zigortuko dira.

Isunen zenbatekoa Udalak adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunari eman dakizkiokeen diru-laguntzetatik kenduko da beti.

Zigorrek mailakatzean, hauek hartuko dira kontuan: asmo txarra, arriskua, pertsonen eta instalazioen eragindako kalteak, behin eta berriro egitea edo eragindako kalte ekonomikoa.

HAMARGARRENA.- PENALIZAZIOAK

10.1 Erregimen Orokorra:

Aurreikusitako betebeharrakoren bat ez betetzeak lurrazal-eskubidea iraungitzea izango du ondorio, baldin eta, aldez aurretik, lurrazal-eskubidedunari notario bidez errekerimendua egin bazaio bete beharrekoa bete dezan eta, behin horretarako ezarritako epea pasata, bete ez bada. Kasu horretan, Orioko Udalaren alde kontsolidatuko da, aldez aurretik, bai lurzorua jabetza eta bai eraikitako azalerarena.



Arrazoi horregatik, Orioko Udalak bere egingo du eraikitakoa, inolako kontraprestaziorik gabe.

Lurrazal-eskubidea iraungitzen bada, lurrazal-eskubidedunak bere betebeharrak betetzen ez dituelako, horrek Hipoteka Legearen 37.1 artikulua aurreikusitako ondorioak izango ditu.

10.2 Erregimen berezia:

Lurrazal-eskubidedunak, obra egiteko, karga edo hipotekak hitzartu baldin baditu, lurrazal-eskubideak erreboka ezin iraungo du, hipoteka liberatu edo likidatu arte; kasu horretan, Orioko Udalak aukera izango du, lurrazal-eskubidedunaren kontra kalte-ordainak eskatzeko egin ditzakeen jardueren kalterik gabe:

a) Lurraren eta egindako obraren titularitate publiko osoa doan eskuratzeko zuzenean, karga edo hipotekan pasiboki subrogatua geratuz hartzekodunaren aurrean.

b) Doan eskuratzeko eta pasiboki subrogatzeko hirugarren entitate edo pertsona fisikoei, haiei emanaz lurrazal-eskubidea eta egindako obraren eskubidea, baita xede desberdin baterako bada ere; edota jabetza osoa lagatzeko, aldean artean adostutako terminotan; beti ere, kontuan hartu beharko direlarik hipotekaren edo kargaren iraupena eta baldintzak.

Nolanahi ere, lurrazal-eskubideduna behartuta egongo da urtero aurkezteko, abenduaren 31ko datarekin, edota Orioko Udalak berriaz eskatzen dion guztietan, hartzekodunak emandako ziurtapena, kredituaren egoeraren berri ematen duena.

HAMAIKAGARRENA.- FORMALIZAZIOA

Kontratua Udalbatzak egindako adjudikazioaren bidez burutuko da eta adjudikazioa jakinarazten den egunetik hogeita hamar eguneko epean Notarioaren aurrean sinatutako eskritura publikoaren bidez formalizatuko dira lurrazal-eskubidearen eraketa eta lagapena.

Titulu hori, gainera, Jabetza-erregistroan inskribatuko da gehienez 3 hilabeteko epean.

Lurrazal-eskubidea eratuta eta lagata, lurzorua gorputz ziur gisa emango da eta ezin izango da erreklamaziorik egin haren ezaugarri geologikoengatik, topografikoengatik edo beste edozein eratakoengatik, nahiz eta eraikuntza garestitu lezaketen eta ikusten edo nabaritzen ez diren.

Adjudikaziodun/lurrazal-eskubidedunak ordainduko ditu notarioaren aurreko formalizazioak eta eskubidea jabetza-erregistroan inskribatzeak eragindako gastuak, bai eta dagozkion zergak ere.



HAMABIGARRENA.- PUBLIZITATEA

Lurrazal-eskubidedunak, eskubide hori hartu bezain laster eta lanak amaitu arte, 2 x 3 metroko kartel bat jarri eta mantenduko du bere kontura, Orioko Udalak udal-lurzorua laga diola adieraziz. Errotulazioari dagokionez, Euskara departamentuak ezarritako irizpideak errespetatu beharko ditu.

HAMAHIRUGARRENA. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Udalak bere eskumenak erabiliz hartzen dituen erabakiak betearazleak dira eta horien aurka administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo dezakete interesatuek.

Hala ere, bi aldeek aukera dute beren auziak arbitrajearen eskutan uzteko, indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituz.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA Jon Redondo Lertxundi alkateari, ORIOKO HERRI IKASTOLA Kooperatiba Elkartearekin, Orioko Udalaren izenean, azalerako eskubidearen lagapenaren eskritura publikoa izenpetzeko akordio honen erabakian jasota dauden terminotan, eta behar diren tramiteak egiteko, eskritura hori Jabetza Erregistroan guztiz inskribatzeko, baimena emanaz, beharrezko bada, azalera eskubide hau lagatzeko baldintza orrian egon litezkeen oker materialak edota egitezko okerrak zuzentzeko.

Orioko 8. sektoreari —Munto— dagokion guztian orain arte erakutsitako jarrerarekiko koherentziagatik, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du bozketan parte hartu.

10.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEAN TALDE MISTO BAT SORTZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziak EAE/ANV alderdi politikoaren zerrendetan aurkeztu ziren 2007ko udal hauteskundeetan eta orain alderdi hori legez kanpo geratu da, epai irmo baten bidez; hori dela eta, Belasko, Goiburu eta Zinkunegi zinegotziek talde mistoa sortu eta bertan sartzeko eskaria egin dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Orioko Udalean talde mistoa sortzea; talde misto horretan sartuta geratzen dira Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziak.

11.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EAE/ANV ETA EHAK ALDERDIEN ILEGALIZAZIOARI BURUZ, ETA EAJK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

EAE/ANV eta EHAKren ilegalizazioaren aurrean

Ebazpenak:

1. Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela azaldu nahi du.

2. Udal honek aukera politikoen aniztasuna errespetatu behar dela azaldu nahi du. Honela, alderdi politikoen ilegalizatzeko estrategia antzua eta antidemokratikoa salatzen du. Normaltasun politikotik urruntzen gaitu eta gatazka politikoa elikatzen du.

3. Udal honek azaldu nahi du ilegalizazio estrategia Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela, eta independentzia helburu duen herri-proiektua indargabetzea helburu duela.

4. Udal orok herritarren borondatea behar du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duten lege, epai edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.

5. Udal honek herritarrek aukeraturiko EAE/ANV zinegotziak eta EHAK alderdiko parlamentariak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.

6. Udal honek EAE/ANV eta EHAK alderdien partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.

7. Udal honek euskal gizarteak nahi eta eskatzen duen benetako aldaketa politikoa, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarrituko den aldaketa, gauza dadin bere ekarpena egiteko prest dagoela adierazi nahi du.

8. Udal honek, alderdi interesen ginetik, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubidea ahalbideratuko duen marko demokratikoaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.

9. Udal honek ilegalizazio estrategia salatzeko hurrengo arratsaldekoetan, "....." lelopean. manifestazio bat egiteko deia luzatzen du eta mobilizazio horretan herritarrek parte har dezaten gonbitea luzatzen du.

10. Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie

Segidan, Udalbatzarrak EAJ-PNV udal talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak, hitzez hitz, honela dio:



Alderdi politikoen ilegalizazioen aurrean, EAJ-PNVko udal zinegotzi taldeak ondorengo mozioa proposatzen dio udalbatzari.

1.- EHAK, ANV, Gestorak eta Askatasunari ilegalizazio epaiak, politikarako partehartze eskubidearen aurkako dira, eta estatu espainiarraren botere estamentuen ahuleziaren adierazgarri.

2.- Oinarrizko eskubideei etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak bizi duen soluzio bilaketarako. Soluzioa baitator batetik, oinarrizko eskubide ororen zapalketa gaitzestetik eta bestetik, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa itxiko duen akordio politikoa lortzetik; beti ere gure Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko duen eskubide demokratikoa oinarri hartuta.

3.- Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.

4.- Indar eta adierazpen politiko orok du, Euskal Herriko erakunde guztietako ekimen sozio politikoetan partehartzeko eskubidea, herritarren borondateak adierazitako ordezkartzaren arabera eta guztiontzat baldintzen berdintasuna bermatuta.

5.- Horiek horrela, berretsi nahi dugu oraingoan ere, azken udal hauteskundeetan talde politiko bakoitzak lortutako ordezkartza errespetatzearen aldeko gure lana.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta alkateak gaiarekiko erakutsi duen utzikeria salatzen du, ez duelako deitu udalbatzarraren ezohiko bilkura bat, EAE/ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioari buruzko mozioa eztabaidatzeko. Hala ere, adierazten du aurkeztu diren bi mozioen edukiaren alde dagoela eta, beraz, talde mistoa osatzen duten zinegotziek berek aurkeztutako mozioaren aldeko botoa emango dutela eta, aldiz, abstentzio botoa emango diotela EAJ-PNVk aurkeztutako mozioari. Joseba Goiburuk galdetzen dio alkateari nola pentsatzen duen EAJk gatazka politikoa konpondu, zeren eta alderdi horrek Ondarroan, Markinan, Lizartzan eta beste hainbat tokitan izan dituen jokabideak ez baitira, hain zuzen ere, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa akordio politikoaren bitartez behin betikoz konpontzeko eredu egokia; Joseba Goiburuk dio, bere ustez, EAJk ez duela asmorik mozio alternatiboan adierazten duena betetzeko eta, azkenik, adierazten du gatazka politikoiari, nahitaez, irtenbide politikoa eman behar zaiola.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ-PNV) abstentzio botoa emango diola talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioari eta aldeko botoa emango diotela bere talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboari. Adierazten du, baita ere, gatazka politikoa konpontzeko bidea elkarrizketa eta bakea direla eta hori herri kontsulta baten bitartez bideratu behar dela; esaten du, bestalde, Ertzaintza polizia



integrala dela eta Euskadiren zerbitzura dagoela, eta ez EAJren zerbitzura; azkenik, dio EAJren eta talde mistoko zinegotzien arteko aldea honako hau dela: talde mistoko zinegotziek ez diotela ETari eskatzen armak uzteko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV) eta Del Hoyo (EAJ-PNV), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek EAE/ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioaren aurrean aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Bestalde, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA EAJ-PNV udal talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezalaxe.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT ETA-REN HONAKO ATENTATUEI BURUZKOA: SANTOÑAN LUIS CONDE DE LA CRUZ ARMADAKO BRIGADA HIL ZUENA, ONDARROAKO ERTZAINZAREN POLIZIA ETXEAREN KONTRA EGINDAKOA, GASTEIZKO CAJA VITALAREN EGOITZA SOZIALAREN KONTRAKOA ETA TOLOSAKO EPAITEGIAREN KONTRAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; adierazpen instituzional horrek, hitzez hitz, honela dio:

ETak Armadako brigada Luis Conde de la Cruz jaunari bizia kendu zion atentatu terrorista kriminala burutu zuen, eta Ondarroan, Ertzaintzaren komisariaren aurrean, Gasteizen eta Tolosan ere egin zituen atentatuak ETak. Horiek direla-eta, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Bozeramaileen Batzordeak onartutako erakunde-adierazpenarekin bat eginik ondorengo adierazten du Orioko Udalak.

Lehena.- Gogor gaitzetsi eta arbuiatzen duela erakunde terroristak egin duen azkeneko hilketa hau, eta elkertasuna helarazi nahi diela Luis Conde eraildakoaren senitarteko, adiskide eta lagunei; Luis Conde de la Cruz Armadako brigada zen, eta Santoñako Patronato Virgen del Puerton ostatu hartuta zegoen. Era berean, ETak Ondarroan, Gasteizen eta Tolosan egindako atentatuak ere gaitzesten dituela.



ETAk burututako hilketa hau eta beste atentatuak basakeriaren eta gizatasunik ezaren beste erakusketa bat dira. Bestalde nahi duela azkar sendatu daitezela Santoñako eta Ondarroako atentatuetan zauriak jasan zituztenak, haietako hiruk zauri larriak, eta beren senitartekoei, adiskideei eta lagunei elkartasuna helarazi nahi diegu. Halaber, Ondarroako, Gasteizko, Tolosako eta Santoña herri kantabriarreko biktimei gure hurbiltasuna, babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu, bai eta Ertzaintzako eta Armadako biktimei ere.

Bigarrena.- Orioko Udalak azaldu nahi du, halaber, guztiz sinetsita dagoela terroristen indarkeriak, jarduera kriminala izaki, oinazea eta arbuioa baino ez duela eragiten herritar gehien-gehienengan. Horregatik, ETari eskatu nahi dio behin betiko desagertu dadila inolako baldintzarik gabe, eta helarazi nahi dio euskal gizarteak bakearen eta elkarbizitza baketsuaren aldeko apustua eginga duela, eta indarkeriazko ekintza anker horiek guztiz arbuizatzen dituela.

Hirugarrena.- Orioko Udalak gaitzetsi egiten ditu atentatu hauek, horien egileen koldakeriaren eta ankerkeriaren beste erakusgarri bat gehiago baitira. Egile horiek berriz ere ekintza kriminal bat burutu dute, eta horrek beren eta ekintza horiek babesten dituztenen zitalkeria morala agerian uzten du.

Orioko Udalak nabarmendu nahi du terroristen zentzugabekeria gehigarria eta erokeria bortitza; izan ere, bonba-autoetako bat aldeztatik jakinarazi gabe leherrarazi zuten eta bestea oso denbora gutxirekin jakinarazita, eta horrek erakusten du Ondarroan eta Santoñan ahalik eta biktimarik gehien eta ahalik eta oinazerik eta tragediarik handiena eragiteko zeukatena grina.

Gainera, atentatu terrorista horiek berriz ere behartzen gaituzte gure erabateko arbuioa adieraztera isiltasun lotsagarriari eusteko edonolako kontsiderazioen atzean babesten direnei.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA adierazpen instituzional bat ETaren honako atentatuei buruzkoa: Santoñan Luis Conde de la Cruz armadako brigada hil zuena, Ondarroako Ertzaintzaren polizia etxearen kontra egindakoa, Gasteizko Caja Vitalaren egoitza sozialaren kontrakoa eta Tolosako epaitegiaren kontrakoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta galdetzen dio alkateari ea asmorik baduen Orioko 8. sektorean —Munto— ikastetxea eraikitzeko obrak gelditzeko dekretua betearazteko edo, bestela, filibusteroen politika aplikatu behar



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2008/10/28

duen, legea erabiliz denbora irabazteko, gainontzeko herritar guztiek bete behar ditugun arauen gaintik pasata.

Alkateak erantzuten dio egia dela alkatetzak obrak geldiarazteko agindua eman zuela; baina Udalak ez duela bide judizialek jo, kontu hori konpontzeko bidean dagoelako.

Jesus Rodriguez zinegotziak erantzuten dio egingo dena izango dela adabakiak jarri, egin diren ilegaltasun guztiak estaltzeko. Bere ustez, ikastetxe berriaren eraikuntza ilegala da eta ikusi beharko da nola legeztatzen den; jakina, inolako isunik jarri gabe.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,